

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2007ko ABUZTUA

Euskal AEko industria %2,6 hazi zen 2007ko abuztuan

2007ko lehen zortzi hilabeteetako hazkunde metatua %3,9 izan da.


EUSTATen datuen arabera, eta lan-egutegi homogeneousari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko industri produkzioa 2006ko hil beraren aldean %2,6 hazi da 2007ko abuztuan. Urteko lehen zortzi hilabeteetan %3,9ko hazkunde metatua izan da, 2006ko aldi beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, 2007ko abuztuan % 3,5 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa, aurreko hilarekin alderatuta.

Industri jardueraren balantzea urteko lehen zortzi hiletan urte arteko %3,9ko hazkundearekin ixten da; ekipoko eta bitarteko ondasunek jokaera azpimarragarria izan dute; berriz, energiako sektorean eta kontsumoko ondasunenean tasa negatiboak izan dira (batez ere kontsumo ez iraunkorraren ondasunetan).

Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabeteka

% incremento



(*) 2007ko uztail-abuztuko urte arteko hazkunde zuzendua

Iturria: Eustat.

Sektoreen arabera bilakaera

Sektoreka, eta industri sektore handien sailkapenetik, 2007ko abuztuko indizearen bilakaeran, 2006ko abuztuaren aldean, hazkundera daukagu Ekipoko ondasunetan (%5,0), Bitarteko ondasunetan (%3,5) eta baita Kontsumoko ondasunetan ere (%1,5), Kontsumo iraunkorraren ondasunetan (%1,3) eta ez-iraunkorretan (%1,5) izandako igoerengatik. Energiaren sektorean %0,2ko jaitsiera izan da.

2007ko abuztuko hil arteko aldakuntzak positiboak izan dira 2007ko uztailaren aldean industri sektore handi guztientzat, Energiarentzat izan ezik (%-0,2). Ekipoko ondasunak %5,9 igoen dira; Bitarteko ondasunak %1,9 eta Kontsumoko ondasunak %7,9. Kontsumoko ondasunen bi osagaien artean kontsumo iraunkorrekoek hil arteko %5,3ko igoera izan dute eta ez-iraunkorrekoek %9,2koa.

Lurralde historikoen arabera bilakaera

Lurralde historikoen arabera, Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaerak joera ezberdinak izan ditu: Gipuzkoan %5,9 hazi da, eta Bizkaian (%2,5); Araban (%-3,9) jaitsi egin da.

Hil arteko hazkunde-tasak, 2007ko abuztua uztailaren aldean, positiboak izan dira hiru lurraldeetan: Araban %6,3 hazi zen, Bizkaian %1,8 eta Gipuzkoan %4,0.

Taula: 2007ko ABUztua. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasak (%).

Kontzeptua	Zuzendua		Desestacionalizatua	
	Abu07 / Abu06	At / At-1 (1)	Abu07 / Uzt07	Uzt07 / Eka07
Indize orokorra:				
Euskal AE	2,6	3,9	3,5	-2,9
Araba	-3,9	2,4	6,3	-5,1
Bizkaia	2,5	3,6	1,8	-2,8
Gipuzkoa	5,9	5,3	4,0	-1,7
Indizeak helburu ekonomikoka-Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	1,5	-3,2	7,9	-7,9
-Kontsumo-ondasun	1,3	-0,2	5,3	-6,0
-Kontsumo-ondasun	1,5	-4,6	9,2	-8,9
Ekipo-ondasunak	5,0	8,3	5,9	-1,5
Bitarteko ondasunak	3,5	4,9	1,9	-1,6
Energia	-0,2	-2,4	-0,2	-2,9

"T" urteko urtariletik azken hileraren arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko "T-1" aldi beraren aldean.. **Iturria: Eustat.**

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Telef.: +34 -945 75 00 Faxa: +34 -945 75 01 e-mail: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp